



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 2ko 108/1993 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 2ko 108/1993 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Autonomi Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, «Euskal Herriari dagozkion konpetentziak» deritzon Igo. tituluari gizarte gaiari buruzko gaien eskuma Autonomi Elkartearentzat gordetzen du bakar-barrik eta, aldi berean, euskal botere publikoek, norbere eskumenaren eremuaren barruan, hiritar guztien bizitza-baldintzak hobetzeko politika bultzatzen berarizko agindua xedatzen du.

Eusko Legebiltzarrek aldarrikatutako «Gizarte Zerbitzu»ei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legeak, 3. artikuluko 4. atalean gizarte zerbitzuen lehentasunezko iharduera-eremuetarik bat zaharrak euren gizarte ingurunean eutsi, haien gizarte-kultur garapena bultzatu eta, horrela behar izanez gero, egoitzazko giro egokia eskaintzera bideratutako zerbitzuen bidez adinekoekiko laguntza dela aurriztatu du.

Aipatu lege horrek, bestetik, gizarte zerbitzuen eremuko eskumen zehatzak iratxikitzen dizkie foru organoek, berauek aurrekontuetan eskumen horiek sortarazitako gastuak ordaintzeko partida bereziak zuzkitu behar izango dituztela ezarri, eta, halaber, 27. artikuluan foru aldundiei iratxikitzen die berauek egitarauetan udaleek edo udalezgandiko enteek nahiz erabiltzaileek eurek, gizarte zerbitzu ezberdinei eutsi eta zerbitzu horiek garatzeko, ordaindu behar izango dituzten partaidetza-portzentaiak ezar ditzaten.

Legezko mandatuan oinarrituta, eta Lurralde Historikoei buruzko Legeak emandako eskumenetan ezarritakoa dela bide, Bizkaiko Foru Aldundiak, otsailaren 13ko 16/1990 Foru Dekretuaren eta martxoaren 12ko 56/1991 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzako baliodunentzako eta babes egoitza edo zentroetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetu zuen.

Batetik, baliodunentzako egoitza edo zentroetan sartzeko ekonomi laguntzak emateko arautegi aplikagarrian ez bildutako prozedurazko aspektu jakin batzuk _plazaren prezio teorikoa eta udalek gizarte zerbitzuei eutsi eta zerbitzu horiek garatzeko jarri behar duten partaidetza-portzentaia, esaterako_ araupetu nahian: eta, bestetik, arau horren edukinera heldu ahal izateko, aldarazpenak onetsi eta argitaratu beharrean, aukera horrek xedapenen zentzuzko ulermena errazten baitu, babes eta baliodunentzako egoitza edo zentroetan sartzeko laguntzak batuko dituen testu osoa gertutzea erabaki da.

Hori dela bide eta Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapen, antolaketa, araubide eta ihardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araueko 17 eta 64.3. artikuluek emandako eskumenak erabiliz, Gizarte Ongizateko foru diputatu sailburuak proposatu eta Foru Aldundiak 1993.eko azaroaren 2ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe



XEDATU DUT:

1. artikulua

Honako foru dekretu honek Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzako egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzak araupetzea du xedetzat.

2. artikulua

Eskabidea aurkezten den datan gutxienez urtebete lehenagotik Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietariko batean, edozeinetan, erroldaturik egon, familia eta gizarte mailako arazoak eduki eta egoitza batean sartu behar izan eta egoitza horretako egonaldia guztizko kostua ordaintzeko ekonomi baliabide nahikorik ez duten 60 urte baino zaharragoko adinekoek heldu ahal izango diete honako foru dekretu honetako laguntzei, babes egoitza batean sartzeko denean, aurrekoez gain, eguneroko bizimoduko iharduerak berez burutu ahal izateko gai izaten uzten ez dion eritasunen bat izan eta bere egoitzan duintasunez ezin bizi izatea eskatuko zaielarik.

Halere, aurreko lerroaldean xedatutakoa gora-behera, beharkizun horiek betetzeko ezintasuna erakartzen duen inguruabar berezirik edo premia-premiazko arrazoirik gertatzen deneko aparteko egoeretan, behar bezala bidezkotuak eta foru organu egokiak onetsirik, ez da eskatuko adina edo/eta erroldaketari buruzko beharkizunik.

3. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako foru dekretu honetako laguntzen onuradunek hurrengo beharkizunok bete behar izango dituzte:

A) Medikuaren ikuspegitiko beharkizunak

1. Baliadunentzako egoitzetan sartzeko:

a) Eguneroko bizimoduan ohizkoak diren iharduerak berez burutzeko gai izatea.

2. Babes egoitzetan sartzeko:

a) Eritasun elbarriztaileak edo eritasun endekagarri edo neurologikoen ondorioak izatea.

b) Eritasun postkirurgikoak, mozketak eta antzekoak izatea.

c) Mugikortasun luzeagatik batetik bestera ibiltzeko arazo larriak izatea.

d) Zahakeria larriko adinekoa izatea, patologia zehatzik ez agertu arren.

e) Gaiso kroniko ez-terminala izatea, beti ere bere kabuz ibiltzeko ezindua egon eta gutxienezko arreta iraunkorren bidez onurik har dezakeenean.

f) Erizaintzako arreta iraunkorrak behar dituen adinekoa izatea.

g) Zentzumenezko jatorrizko elbarria, bereziki itsua, izatea, beti ere mentsa zahartzaroan sortu eta eritasun horri moldatzeko ezintasuna eduki eta suspertzeko arretak behar dituenean.

h) Gizarte arazoak izateaz gain, patologia psikiatrikoa eduki eta zentro berezitu batean sartzeko beharrik ez izan eta elkarbizitzarako arazo garrantzitsurik jartzen ez duen adinekoa izatea.

B) Ekonomi beharkizunak



- a) Egonaldiaren kostua, Bizkaiko Foru Aldundiak honako foru dekretu honetan eta gizarte eta urgazpeneko zerbitzuen prestakuntzaren ziozko prezio publikoen gaineko indarreko foru arautegian xedatutakoaren arabera dagokion zenbatekoan ordaintzea.
- b) Udalak plazaren kostuaren ordainketan parte hartzen duela ziurtatzen duen udalak berak luzatutako ziurtagiria.

4. artikulua

Ezarritako beharkizunok bete arren, hurrengo inguruabarretarik bat gertatzen zaien pertsonak ezin izango dute laguntza onuradunak izan:

- a) Bitarteko berezituak erabiltzen dituen edo arreta maila nabarmeneko sanitate-urgazpena behar izatea, egoitzen berezko zuzkiduretatik eta berauen ahalbideetatik at daudenak.
- b) Eritasun infekzio-kutsakorren bat izatea.
- c) Eritasun elbarritzailea baina ez-kronikoa izatea, erkidegoaren sanitate-zerbitzuen laguntzarekin, etxean bertan edo pisu babestuetan egon ahal izateko aukerak izanik.
- d) Eritasun kroniko ez-elbarritzailearen bat izatea, erkidegoaren sanitate-zerbitzuen laguntzarekin, etxean bertan edo pisu babestuetan egon ahal izateko aukerak izanik.
- e) Egoitzaren inguruneak, beste pertsona batzuekiko hartuemanek nahiz bestelako egoerek sortarazitako ondore antiterapeutikoak izatea.
- f) Jokabide nahasketa larriak edo/eta portaera erasokorrik izatea, sare psikiatrikoaren barruan zaindu beharrekoak.

5. artikulua

Eskabideak interesatuek eurek edo berauen legezko ordezkariak aurkeztuko dituzte, bakoitzak erroldatuta dagoen udaletxeko bulegoetan, horretarako normalizatutako eredu ofiziala (honako foru dekretu honetako lgo. eraskina) beteko dutelarik, eta eskabideari honako agiri hauek batuko dizkiote:

- a) N.A.N.aren fotokopia edo, horrelakorik ez izanez gero, eskatzailearen nortasuna benetakotzen duen bestelako edozein agiri.
- b) Sanitate-urgazpeneko prestakuntzarako kartilaren fotokopia.
- c) Medikuen ziurtagiri ofiziala.
- d) Erroldaketa ziurtagiria.
- e) Eskatzaileak dituen ondasunei dagozkien azken bost urteotako hirilur eta landalur kontribuzioei buruzko ziurtagiria, Ogasun Ordezkaritzak luzatutako ziurtagiria.
- f) Eskatzailearen jabetzako sarrera eta ondasunei buruzko adierazpena, honako foru dekretu honetako II. eraskineko ereduaren arabera.

Eskatzaileak, ondasun eskualdaketarik egin izan badu, eskualdaketa hori benetakotzen duen agiriaren fotokopia aurkeztu beharko du.

- g) Ondasunaren gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzearen fotokopia edo, horrelakorik ez edukiz gero, bigarrena aurkeztu behar izan ez duela benetakotzen duen Ogasun Sailak luzatutako ziurtagiria.



h) Errentaren gaineko aitortpenik aurkeztu behar ez izanez gero, eskatzaileak eduki ditzakeen pentsioei buruzko ziurtagiria edo pentsioen azken ordainagiriaren fotokopia.

6. artikulua

Aurreko artikulua aipatu eskabidea eta agiriak behin jasoz gero, udaletxeko zerbitzu egokiak gizarte txostena idatziko du, honako foru dekretu honetan III. eraskineko ereduaren arabera. Ondoren agiri hori, plazaren kostuaren finantzaketan honako foru dekretu honetako 12. artikuluan xedatuko den eran parte hartzen duela agertarazten duen udalaren erabakiari eta eskatzaileak aurkeztutako gainerako agiriei batu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailera igorri beharko du.

7. artikulua

1. Gizarte Ongizate Sailak, arauzko espedientea irekitzeko, espediente hori ebazteko bidezkoztat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, Eskatutako agiriak aurkeztu nahi ez izateak, aitortu beharreko datuetan aizunkeria edo alderauzketarik egiteak nahiz laguntza lortzeko maulazko iharduerarik, edozein, egiteak espedientea artxibatzea erakarriko luke, jokabide horiek sortaraz ditzaketen erantzunkizunen kaltetan jo gabe.

2. Gizarte Ongizate Saileko Adinekoen Sailak, espedientea osatzeko, hurrengo txostenok erantsi behar izango ditu:

- a) Eskatzailearen familia eta gizarte mailako arazoaren eta ezgaitasun mailaren balioztapenari buruzko txostena, honako foru dekretu honetako IV. eraskineko ereduaren arabera.
- b) Eskatzaileak plazaren kostuaren finantzaketan zenbatean parte hartu behar duenari buruzko ekonomi balioztapena, honako foru dekretu honetako 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Arauzko espedientea ireki ondoren, eta Adinekoen Batzorde Teknikoak azterlan, irizpen eta proposamena egin eta gero, Gizarte Ongizateko foru diputatuari dagokio laguntza ematea bidezkoa den ala ez erabakitzea, erabakia interesatuari eta udalari jakinaraziko dielarik.

8. artikulua

Laguntzarako eskubidea izateko eskatutako beharkizunok betetzen dituzten eskatzaileak «itxaron-zerrenda»ren barruan sartuko dira, bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera, zerrenda hori hilero-hilero eguneratu egingo delarik.

Onuradunak itxaron-zerrendaren barruan sartzean, Gizarte Ongizate Sailak sartze horren berri emango zaie sartua izan den onuradun bakoitzari eta udalari.

9. artikulua

Adinekoentzako egoitzek, eskudun organoaren bidez, Gizarte Ongizate Sailari hutsik dituzten plazak jakinaraziko dizkiote, baita ere plaza horien ezaugarriak, plazok betetzeko pertsona egokienak nortzuk izan daitezkeen hautatu ahal izateko, ondoren Gizarte Ongizate Sailak onuradunei dei egingo dielarik, itxaron-zerrendaren ordenaren arabera.

Onuradunak, egoitzan sartu aurretik, egoitzan sartzeari aske onartzen duelako agiria sinatu beharko du, honako foru dekretu honetako V. eraskineko ereduaren arabera, baita ere Bizkaiko Foru Aldundiaren



aldeko zor-aintzatespena, erroldatuta dagoen udalak antzeko agiria egin behar izatearen kaltetan jo gabe.

10. artikulua

Onuradunak zentrora iritsi eta, baita ere sarrera eta baxak direla eta, gerta daitezken gora-beherak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailari eta udal egokiari jakinarazi beharko zaizkie, haiek gertatu eta hurrengo zazpi egunetako epearen barruan, baxen, horrelakorik izanez gero, zioa adieraziz.

11. artikulua

Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzako egoitzen arteko plazzen kostuak ezberdintasunak izanik, 1993. urterako gehieneko kostu teoriko legez kopuru hauek finkatu dira: 6.243 pta./eguneko, babes egoitzetarako, eta 3.200 pta./eguneko baliadunentzako egoitzetara, BEZ barne.

Plazaren benetako kostua aurreko lerroaldean finkatutako gehieneko kostu teorikoa baino gutxiagokoa denean, haren benetako kostua hartuko da kontutan.

12. artikulua

Plazaren kostua Bizkaiko Foru Aldundiaren, onuraduna laguntzarako eskabidea aurkeztu zuen datan erroldatuta zegoen udalaren (geroago beste batean erroldatu bada, ez du axola), eta onuradunaren beraren artean ordainduko dute, azken honek dituen ekonomi baliabideen arabera.

Plazaren kostua honelaxe ordainduko da:

- Onuradunak ordainduko duen portzentaia gizarte eta urgazpeneko zerbitzuen prestakuntzaren ziozko prezio publikoei buruzko indarreko foru araeuan aurrikusitakoaren arabera, dituen sarrerren %75a izango da, pentsioei dagokienean, aparteko soldatak alde batera utzi eta gero.

Senar-emazteak edo ezkontzaren antzeko bestelako hartueman etengabe batez lotutako pertsonak direnean eta laguntzarako eskabidea bietariko batek bakarrik eskatzen duenean, ordainketaren portzentaia sarrerren %50etik %75era bitartekoa izango da, eta biek eskatzen badute, kideetarik bakoitzaren sarrerren 50etik %75era bitartekoa.

Onuradunak berak nahi duen bezala erabiltzeko, ez da geldituko inolaz ere urteko 120.000 pezeta baino gutxiagoko kopurua, bakarka sartutako onuraduna izanez gero, eta 180.000 pezetako kopurua famili unitatearen bi kide baino gehiago sartuz gero.

- Udalaren ekonomi ekarpena, plazaren benetako kostuari edo kostu teorikoari, onuradunari dagokion ekarpena kendu eta geratzen den kopuruari hurrengo taularen arabera aplikatu beharreko portzentaia izango da:

Aplikatu	beharreko (%)
5.000 biztanlerainoko udalerriek	10
5.001 biztanletik 10.000 bitarteko udalerriek	15
10.001 biztanletik 20.000 bitarteko udalerriek	20
20.001 biztanletik 30.000 bitarteko udalerriek	25
30.001 biztanletik 40.000 bitarteko udalerriek	30
40.001 biztanletik 50.000 bitarteko udalerriek	40



50.001 biztanle baino gehiagoko udalerriek

50

- Bizkaiko Foru Aldundiaren ekonomi ekarpena, plazaren benetako kostuari edo kostu teorikoari, onuradunari eta udalari dagokien ekarpena kendu ondoren geratzen den kopurua izango da.

13. artikulua

Aipatu hiru aldeak onuraduna egoitzean sartzean bertan hasiko dira ordaindu behar dutena ordaintzen.

Hala ere, onuradunak berari dagokion egoitzaren egonaldiaren guztizko kostua ordaintzeko adinako ekonomi baliabideak izango balu, ekonomi baliabideak izan bitartean plazaren guztizko kostua ordainduko luke, berak nahi duenean erabiltzeko gehienez honako foru honetako 11. artikuluan finkatutako gehienezko kostu teorikoaren hiru hileko gorde ahal izango dituelarik.

Egoitzari, eskatzen zaizkion agiriak eta frogagiriak Gizarte Ongizate Sailari hilero igorri eta gero, besterik gabe, egingo zaio ordainketa.

Onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Diruzaintza Zerbitzuari ordainduko dio, zuzen-zuzenean, honako foru dekretu honetan xedatutakoa dela bide dagokion zenbatekoa.

Onuraduna dagokion udalak Bizkaiko Foru Aldundiari berari ordainduko dio honako foru dekretu honetan xedatutakoa dela bide dagokion zenbatekoa.

14. artikulua

Honako foru dekretu honetan araupetutako laguntzen onuradunei, egoitzatik kanporatu behar izanez gero, kanpoan egon bitartean plaza hurrengo baldintzotan gorde ahal izango zaie:

- Kanporaketa norbere borondatezkoa bada, ez da izan behar urteko 60 eguneko baina luzeagoa eta, aldi horrek iraun bitartean, onuradunak ekonomi ekarpenaren % 20a ordainduko du, plaza-erreserbaren kontzeptuaren zioz.
- Kanporaldia ospitaleren batean sartu behar izatearen zioz gertatzen bada, aipatu internamenduak iraun bitartean gorde ahal izango zaio plaza, onuradunak, aldi horretan zehar, ohizko egonaldiei dagokien ekonomi ekarpenaren % 20a ordainduko duelarik.

Egoera bietan Bizkaiko Foru Aldundiak onuradunaren ekonomi ekarpenaren diferentziaren ordainketa bere gain hartuko du.

15 artikulua

Adinekoentzako egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzak mugarik gabekoak izango dira eta, ondorioz, aldizkako ordainketari eutsi egingo zaio, baldin eta laguntzaren emakida sortarazi zuten inguruabarrak desagertu, onuradunak edo onuradunaren ordezkariak berariaz hari uko egin, onuradunak bere betebeharrak bete ez, edo egoitzazko zentrora egokitu ez balitz. Azken hori gertatuko balitz, Gizarte Ongizate Sailak, ebazpen baten bidez, ekonomi laguntzari eustea erabaki ahal izango luke, onuraduna beste egoitzazko zentro batean sar dadin proposatuz.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 2ko 108/1993 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetzen duena.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena. Honako foru dekretu honen itzalpean 1993.ean zehar eskatu eta ematen diren banakako ekonomi laguntzak (03) saileko (0304) organikoko 310303 egitaraueko 45100 eta 46100 ekonomikoak izeneko aurrekontuetako partiden pentsutan ordainduko dira.

Hurrengo ekonomi ekitaldietan Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokor egokiak onesten dituen foru araeuan eta horren aplikazio eta garapenerako arauetan gaiaz xedatzen dena izango da aginduzkoa.

Bigarrena. Honako foru dekretu hau baino lehen emandako laguntzek, laguntza horiek onetsi zituen xedapeneko terminoetan eutsiko diote euren indarraldiari, harik eta euren emakida sortarazi zuten inguruabarrek iraun artean, egoitzetako plazen kostuaren eguneratzearen kaltetan jo gabe, honako foru dekretu honetako 11. artikuluan ezarritako ekonomi moduluen arabera eta 1993.eko urtarrilaren 1az geroko ondoreak izanik. Eguneratze hori, martxoaren 12ko 56/91 Foru Dekretuaren itzalpean hartu izan diren egoitzazko plazei bakarrik aplikatuko zaie.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Honako foru dekretu hau, foru dekretua bera indarrean jarri baino lehen hasi eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailaren berarizko ebazpena izan ez duten espedientei aplikatu ahal izango zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Honako foru dekretu honetan ezarritako erronka bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabeturik geratuko dira eta beren-beregi martxoaren 12ko 56/91 Foru Dekretua.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 2ko 108/1993 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Gizarte Ongizate Saileko burua den foru diputatuari ahalmena emana zaio, honako foru dekretu honetan aurrikusitakoaren garapen, betearazpen eta aplikaziorako bidezko xedapen guztiak eta hitzarmen eta itunak eman eta sina ditzan, baita ere adinekoen egoitzetan sartzeko ekonomi laguntzen onuradunek Bizkaiko Foru Aldundiarekin duten zorra aintzatesteko agiri normalizatua, foru dekretu bereko 9. artikuluko bigarren leerroaldean aipatua, ones dezan.

Bigarrena. Honako foru dekretu hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, legezko testu horretako xedapenatariko bigarrenean 1993. urterako plazen kostuaren eguneratzeaz ezarritakoaren kaltetan jo gabe.

Bilbaon emana, 1993.eko azaroaren 2an.

Iharduneko Diputatu Nagusia,
Diputatu Nagusiordea,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

Gizarte Ongizateko Foru Diputatu,
JOSU MONTALBAN GOICOECHEA